

2003ko EKAINAren 14ko BILKURA BEREZIA

Lizartzan, bi mila eta hiruko ekainaren hamalauan, eguerdiko hamabiak direnean, joan den maiatzaren hogeita bostean egindako Udal Hauteskundeetan aukeratuak izan diren, Joseba Egibar Artola, Patxi Ezkiaga Ormazabal, Jose Antonio Imaz Insausti, Zorione Etxezarraga Ortuondo, Xabier Arrese Arratibel, Andoni Etxebeste Iraeta eta Iñaki Apaolaza Azpiazu Jaun/Andreek, lehen deialdian bildu dira.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du, Idazkaria den, Ana Jesus Zabala Garmendiak, Udaleko Idazkariak, hain zuzen.

Idazkariak adierazten du batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, horrela betez, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 Artikuluak eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Behin Idazkariak batzarraldiari hasiera emanez gero, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Errejimenari buruzko Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira, Jose Antonio Imaza Insausti, Zinegotzi hautatua zaharrena izanik, mahaiburu izango dena, eta Iñaki Apaolaza Azpiazu, Zinegotzia hautatu gazteena izanik, Idazkari gisa arituko dena, berau izango delarik, baita ere, batzarraldi honetako Idazkaria.

Mahaiko Idazkariak irakurtzen ditu banan banan aldez aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen

dutenak, eta Mahaikideek egiaztatu ondoren kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusten da.

Udaleko Idazkariak, bateraezintasun arrazoien, ihardueren eta ondare ondasunen aitorten bidezkoak aurkeztu izana frogatu duten Korporaziokideen Interes Erregistroetan inskribatzearen ondorioetarako:

JOSEBA EGIBAR ARTOLA
PATXI EZKIAGA ORMAZABAL
JOSE ANTONIO IMAZ INSAUSTI
ZORIONE ETXEZARRAGA ORTUONDO
XABIER ARRESE ARRATIBEL
ANDONI ETXEBESTE IRAETA
IÑAKI APAOLAZA AZPIAZU

KORPORAZIOAREN ERAKETA

Aurreko operazioa egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak etorri direla, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, Korporazioa formalki eratua aitortzen duelarik.

ALKATEA AUKERATZEA

Idazkariak adierazten die bertan daudenei, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Errejimenari buruzko Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den Batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki.

- Hautagai dira zerrendaburu diren zinegotzi guztiak.
- Hautesle dira bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak.

- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez lau botu beharko dira.
- Botazio honetan ez badu lortzen ezein hautagaik gehiengo absolutua, automatikoki aldarrikatuko da Alkate, botu kopururik haundiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Enpatea gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Txosten honen arabera eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, Alkategai izendatzen da ondoko zinegotzi hautatua:

JOSEBA EGIBAR ARTOLA, EAJ-PNV/EA alderdiko zerrendaburu dena.

Bertaratutako Zinegotziek isilpeko bozketari ekiten diote eta, emandako botuen kontaketa burutu ondoren, honako emaitza hau lortzen da:

<u>HAUTAGAIAREN IZENA</u>	<u>LORTUTAKO BOTUAK</u>
JOSEBA EGIBAR ARTOLA	-----

Hautagaiak, inolako boturik lortu ez duenez, automatikoki, botu kopururik haundiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua izango da Alkate. Hau da, EAJ-PNV/EA alderdiko zerrendaburu dena:

JOSEBA EGIBAR ARTOLA Jauna aldarrikatzen da Alkate.

Jarraian, JOSEBA EGIBAR ARTOLA Jaunak adierazten du, onartu egiten duela Udaleko Alkate kargua eta, karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazioko Udal Batzarraren aurrean, edukitzen horrek barnean dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

Horrenbestez, Alkate-Lehendakariak amaitutzat eman du Batzarra, eguerdiko hamabiak eta laurden direnean.